GAZTEAKAUZOLANEAN

18-30 urte dituzu?
Talde-egitasmo bat garatu nahi?
Mugi zaitez eta errealitate bihurtu!

Urriaren 30a arte!

Deialdia zabalik!

Gipuzkoako Foru Aldundia

ETORKIZUNA ORAIN

# Gazteak auzolanean 2020 deialdia:

## gazteen proiektuentzako dirulaguntza

**Laguntzeko egitasmoak:** xedea da Gipuzkoako gazteei taldeko irabazi asmorik gabeko proiektuak garatzeko laguntza ematea, beren ingurunea inplikatuz eta interes publikoa duten gizartearen eraldaketa prozesuak laguntzea helburu izanik.

**Laguntzen zenbatekoa:** 20.000,00 €. Proiektu batek gehienenez 5.000 € eta gutxienez 1.500 € .

**Aurkezteko epealdia**: 2020ko urriaren 30 arte.

**Garatzeko aldia**: 2021eko ekainaren 30 arte.

**Hartzaileak:** gutxienez 3 kidek osatutako taldeak,(18-30 urte). Enpresa edo elkarte bezala eratuta egon ez eta proiektu edo ideia bat garatzeko proposatzen dutenak. Baldin eta proiektuak Gipuzkoa osorako edo bertako lurralde baterako gizarte edo/eta kultur interesa badu.Taldeko eragileen bi herenek gutxienez, Gipuzkoako Lurralde Historikoko udalerri batean administrazio auzoa izango dute.

**Helburuak**

- Gazteen talde ekimenak bultzatzea.
- Giza garapena eta komunitatearena sustatzea.
- Pertsona gazteen ahalduntzea sustatzea.
- Gipuzkoako gizarte bizitza, ekonomikoa eta kulturala aberastea.
- Gazteria, gizarteak aintzat hartzea ahalbidetu, bere sormen, berrikuntza eta eraldatze gaitasuna onartuz.
- Etorkizuneko gizarte ekintzaileentzako prozesuetan, ikaskuntza lortzeko baliogarri izan daitezkeen esperientziak erraztu.

**Jarduera esparruak eta proiektu motak**

- Proiektu artistikoak edo/eta kultural komunitarioak.
- Ingurunearen zaintza eta jasangarritasuna oinarri duten proiektuak.
- Genero berdintasuna, euskara, kulturartekotasuna, elkartasuna eta beste alorretan oinarritutako gizarte edo komunitatearen eraberritze proiektuak.

- Alor hauez gain, interesgarriak diren beste esparru batzuetan oinarritutako proiektuak aintzat hartu ahal izango dira.

**Aurkeztu behar dena**

- Proiektua: gutxienez biltzen dituena xedeak, justifikazioa, baliabide materialak, kronograma, gauzatzeko lekua eta ebaluazio sistema bat.
- Taldekide guztien NANaren fotokopia.
- Taldekide guztien administrazio auzotasunaren egiaztagiria.
- Taldekide guztiek zerga betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak egunean dituztela egiaztatzen duten agiriak. Edo eskatzaileek sinatutako adierazpena erakundeak agertu beharreko datuak Kultura, Lankidetza, Gazteria eta Kirola Departamentuari emateko.

**Ideia garatzeko, info gehiago edo eskaera betetzeko beharra izanik:**

900 110 111 / 943 47 25 80

Whatsapp:620 27 80 70

uimaz@gipuzkoa.eus

Gaztegunea. Anoeta pasealekua 28. Izotz Jauregi ondoan. Donostia.

**Informazio osoa: https://www.gipuzkoa.eus/eu/web/gazteria/gazteak-auzolanean**

**Araudi aplikagarria**

Kultura, Turismo, Gazteria eta Kirol Departamentuak kudeatzen dituen bekak eta laguntzak emateko oinarri arautzai-leak.

1010/276/2020 Foru Agindua, maiatzaren 22koa, auzolanean antolatutako gazteen proiektuetarako laguntzak emateko 2020ko deialdia onartzen dueña.